

TOLOSANDBLUES 2017. EGITARAUA

Eguna / día	Ordua / hora	Lekua / lugar	Taldea / grupo
Ekainak 29	20:30	M ^a Luisa Agirre doktorearen plaza	STAR BLUES (Disko berriaren aurkezpena)
Ekainak 30	19:30	Ilargi Taberna	BIG MAMA TRIO (Big Mama + Miriam Aparicio + Balta Bordo)
	22:30	Euskal Herria Plaza	ALEX SCHULTZ + TRAVELLING BROTHERS
Uztailak 1	13:00	Lopez Mendizabal Plaza	BIG MAMA TRIO
	19:00	Solana, 4 Taberna	ANIMAL BLUES (4koa)
	22:30	Plaza Berria	BLUES TRAIN (Paul San Martin, Carlos Malles, Mingo Balaguer, Alex Caparoscio) THE TEASERS BLUES BAND
Uztailak 2	13:00	Saikin 2 Taberna	PAUL SAN MARTIN & MINGO BALAGUER
	20:00	Txurreria	TINA MASAWI TRIO

TOLOSANDBLUES 2017. TALDEAK ETA ARTISTAK

ANIMAL BLUES

Taldea, lau musikaririk osatzen dute. Jatorrizko blues beltza hizpide dute eta beren repertorioan klasiko ezagunenak aurkituko ditugu. Eskarmentu haundiko musikariak nafarroan, eta badira hamar urte Musikenen (Euskal Herriko goi-mailako Musika Ikastegia) elkar ezagutu zutela eta harrez gero proiektu askotan egin dute bat, euren proiektuetan eta besteenetan. Era askotako taldetan topatu ditzakegu, gure garaiko musika estilo askotan jotzen. Lehen diskoa iaz argitara eman zuten, benetam emaitza aparta lortuz. Zuzeneko indartsu eta erakargarria du Animal Blues laukote naparrak.

<http://www.animalblues.es/>

STAR BLUES

Ez dira sarri topatzen erreperitorioan eurek ondutako gaien bilduma bat eskaintzen duten eta hamabi konpasen topikotik aldentzen diren blues talde gazteak, are gutxiago garai bateko klasikoak hertsiki kopiatzen ez dituztenak formula jakin hura modu batean edo bestean kopiatzeko saioan, ahalegin hori erabiliegia eta, azken buruan, zalearentzako gogaikarria gerta baitaiteke sormenik gabe. Eta hori gutxi balitz, askoz ere ezohikoagoa da bluesaren hizkuntza unibertsala erabiliz gaiak bere hizkuntzan ontzen dituen talde bat aurkitzea, eta gainera gai horiek kalitate handiz eta euren nortasunaz aberastuta egotea.

Ordiziako musika eskolan ikasitako Jon Barrerosek (ahotsa eta gitarra) eta Urko Ruiz de Apodakak (baxua) –geroago bilduko ziren Yon Labayen (pianoa eta organoa) eta azken taldekidea, Fermin Etxeberria (bateria)– talde hau osatzeko erabakia hartu zuten 2010. urtean egindako bilera batean. 2014. urterako sendotuta azaltzen zaigu proiektua, haragituta eta gauzatuta aurkezten baitzaigu Fredi Peláezek Pottoko estudioetan eskainitako laguntzari eta gainbegiratzeari esker.

<https://starblues.bandcamp.com/>

ALEX SCHULTZ + TRAVELLIN´BROTHERS

ALEX SCHULTZ

Dudarik gabe aurtengo izarra Californiatik dator New York-en jaioa baina ia 40 urte Californian bizitzen daramatzen Alex Schultz zlantzarik gabe Amerikako Estatu batuetako blues kitarra jotzaile onenetakoa dugu. Wes Coast soinuak duen erreferente garrantzitsuenetakoa iznaik, Alex Schultz-ek californiako talde garrantzitsuetan zein armonika jotzaile onenekin jotzeko aukera izan du. Gure artean izatea benetako luxua da, benetako oparia Blues musikaren zaletuentzat.

<http://www.allmusic.com/artist/alex-schultz-mn0000936466/biography>

TRAVELLIN´BROTHERS izenak berak dioen bezala, talde familiarra da eta, esan gabe doa, bidaiaria, aldakorra gutxi bezala, eta horrek guztiak aukera eman dio estatuko jaialdi, klub eta areto handi guztietan jotzeko eta Europako herrialde askotan (Frantzia, Italia, Suitza, Alemania, Portugal...) birak eta itzuliak egiteko. Inoiz alderik alde igaro du ozeanoa AEBetan jotzeko. Musikaren alorreko eskarmentu handiko taldea da, eta taldekideek batez beste 35 urte baino ez duten arren, 600 emanalditik gora eskaini ditu eta seigarren diskoa aurkeztuko du 2014ko otsailean. Zuzeneko emanaldi bizi eta ikusgarria eskaintzen duten blues alorreko musikarien aurrean gaude, kalitate eta baikortasunez beteriko taldearen aitzinean. Bizitzaren eta musikaren ospakizunak dira talde honen emanaldiak!

2014. urtean kaleratu dute Magnolia Route. bertan azken urteetan erabili dituzten formatuak erakustez gain, taldearen heldutasuna nabari geratzen da.

<http://travellinbrothers.com/>

BIG MAMA MONTSE

Estatuko bluesaren esparruaren barruko historiaz hitz egin behar bagenu, urteetan zehar egindako lana, artea eta musika ibilbidea nortu behar bagenu eta putzuaz honaindiko bluesaren erregina handien oinordekotzari izena jarri behar bagenu, ez genuke zalantza izpirik izango, Big Mama Montse litzateke izen hori. Izen hori dagoeneko sakon iltzatuta dago zaleen memoria kolektiboan, ia 30 urteko ibilbide oparoaren ostean, dibulgaziozko

lan gaitza egin ondoren, hogeitik gora disko kaleratu eta ezin konta ahala sari jaso eta milaka kilometro egin eta gero bluesak duen erreferentzia nagusietako bat baita gaur egunean penintsula Atlamntikoaren alde honetan Quen of the Blues izendatu genezake Big Mama Montse

THE TEASERS

Bartzelonatik datorren The Teasers taldea aurtengo ezusteko nagusia izango da. Zortzi musikari taula gainean, tartean Afrikatik datorren abeslaria Tina Masawi. Era berean 3 metal gehi Europa mailan dagoen armomika jotzaile garrantzitsuenetakoa, Joan Pau Cumellas. Taldearen repertorian blues musikaren standarrak entzungo ditugu gehi euren doinu proioak. Azken hauek ikutu indartsuago dute rock eta rock blues musikara hurbilduz

<https://www.theteasersblues.com/>

BLUES TRAIN

Iaz abian jarri zen proiektu guztiz interesgarria iritsiko da jaialdira. Guztira sei musikarik osatzen dute Blue Train formazio berria, 3 gipuzkoar eta estatutik datozen eskarmentu haudiko beste hiru musikari. Hauen artean Mingo Balaguer armonika sevillarra punta puntakoa eta inolako aurkezpena eskatzen ez duena. Alex Caporuscio, urte asko Madrilen daramatzan italiarra eta euskaldunen artean, Paul San Martin piano jotzaile aparta eta bikaina. Taldeak gehien bat Chicagoko blues doinu klasikoak interpretatzen ditu, eta Tolosan euren lehen lana aurkeztuko dute

<https://www.youtube.com/watch?v=wEpoFDWy62k>